

# PROBA ESPEZIFIKOA

201' ko PROBA

**BIOLOGIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2013ko MAIATZA

**BIOLOGIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

**BIOLOGÍA**

### **Azalpenak**

Azterketak bi zati ditu:

- Lehen zatian, bi gaietako bat azaldu behar da: A edo B.
- Bigarren zatian, hiru galderei erantzun behar zaie.

Aintzat hartuko dira:

- Hizkuntza zientifikoaren erabilera.
- Ideiak adierazteko ordena eta heldutasuna.
- Azterketaren aurkezpen egokia.

Galdera bakoitzean azaltzen da zenbat puntu balio duen.

Probaren iraupena: ordubete.

**Hautatu gai hauetako bat: A edo B (4 puntu)**

A) Polisakaridoak (almidoia, glukogenoa eta zelulosa): Egitura, lotura motak, non aurkitzen diren eta funtzio biologikoak bizidunetan.

B) Kloroplastoak: non aurkitzen diren, haien egitura eta funtzio biologikoa.

**Erantzun galdera hauei: (6 puntu)**

1.- Neuronak: zer dira? Zein da haien funtzioa? Zer da sinapsia? (2 puntu)

2.- Giza ernalketa: (2 puntu).

a) Izendatu itzazu ugal-aparatuen atalak eta ugal-zelulak.

b) Zehaztu ezazu zer bide egiten duten ugal-zelulek elkartu arte.

3.- Zer da HIESa? Zerk sortzen du, eta nola eragiten du? Zergatik da hain zaila txerto bat lortzea? (2 puntu)



**EBAZPENA BIOLOGIA  
(2013ko maiatza)**

**ZUZENKETA-IRIZPIDEAK**

1.- A edo B gaia azaltzea: (4 puntu)

2.- Galderei erantzutea: (6 puntu)

<b>GALDERAK</b>	<b>Puntu kop.</b>	<b>ERANTZUNAK</b>
A.- Polisakaridoak (almidoia, glukogenoa, zelulosa): egitura, lotura motak, kokapena eta funtzio biologikoak bizidunetan.	4	<ul style="list-style-type: none"><li>- Monosakaridoak elkartuz eratzen direla adieraztea (0,5 puntu)</li><li>- Lotura glukosidikoak aipatzea (0,5 puntu)</li><li>- Egitura, kokapena eta funtzioa azaltzea:<ul style="list-style-type: none"><li>Almidoiarena (1 puntu)</li><li>Zelulosarena (1 puntu)</li><li>Glukogenoarena (1 puntu)</li></ul></li></ul>
B.- Kloroplastoak: non aurkitzen diren, egitura eta funtzio biologikoa	4	<ul style="list-style-type: none"><li>- Landare-zelulen organulu bereizgarria dela adieraztea (1 puntu)</li><li>- Atalak: bi mintz, estroma, tilakoideak laburki azaltzea (1 puntu)</li><li>- Fotosintesia:<ul style="list-style-type: none"><li>Prozesu orokorra adieraztea (1 puntu)</li><li>Bi faseak: argi-fasea eta fase iluna laburki azaltzea (1 puntu)</li></ul></li></ul>
1.- Neuronak: zer dira? Zein da haien funtzioa? Zer da sinapsia?	2	<ul style="list-style-type: none"><li>- Nerbio-sistemaren oinarrizko zelulak direla azaltzea eta atalak adieraztea (1 puntu)</li><li>- Informazioa nerbio-bulkada bidez transmititzen da gorputzean zehar (0,5 puntu)</li><li>- Sinapsia neuronen arteko ukitze-aldeak dira. Elektrikoak eta kimikoak (0,5 puntu)</li></ul>
2.- Giza ernalketa: a) Izendatu ugal-aparatuaren atalak eta ugal-zelulak b) Zehaztu zer bide egiten duten ugal-zelulek elkartu arte.	2	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gizasemea: zakila, testikuluak, epididimoa, hodiak, semen-besikula, prostata. (0,5 puntu)</li><li>- Emakumea: obulutegiak, Fallopioren tronpak, uteroa, bagina, ezpain handiak, ezpain txikiak, klitoria (0,5 puntu)</li><li>- Ugal zelulak: espermatozoidea eta obulua (0,5 puntu)</li><li>- Espermatozoidearen bidea obuluarekin elkartu arte. (0,5 puntu)</li></ul>
3.- Zer da HIESa? Zerk sortzen du, eta nola eragiten du? Zergatik da hain zaila txerto bat lortzea?	2	<ul style="list-style-type: none"><li>- Immunoeskasia eragiten duen birus batek sortutako sindromea dela adieraztea (1 puntu)</li><li>- Birusak globulu zuri jakin batzuei erasotzen die. (0,5 puntu)</li><li>- Kapsularen osagaien aldakortasun handiak txertoak lortzea eragozten du. (0,5 puntu)</li></ul>



**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEAK</b>
<b>A</b>	<i>1.2. Biomolekulen egitura kimikoa eta izaki bizidunetan betetzen duten funtzioa erlazionatzea.</i>
<b>B</b>	<i>2.1. Zelula prokariotoen eta eukariotoen ezaugarri komunak eta bereizgarriak azaltzea. 2.2. Mintzek fisiologia zelularrean betetzen duten funtzioa azaltzea.</i>
<b>1</b>	<i>3.3. Nerbio-bulkada transmititzeko mekanismoa deskribatzea.</i>
<b>2</b>	<i>3.4. Gizakion ernalketa-prozesua deskribatzea.</i>
<b>3</b>	<i>6.4. Sistema immunologikoaren urritasunen ondoriozko arazoak deskribatzea. 6.5. Txertoen ekintza-mekanismoa azaltzea</i>